

Emen bizi ta eldu naiz,
emen maite, zabaldu,
loratu ta lagundu,
eta anima aberastu.

Bildur bat sartu zaidan
jaiotzako kabian.
Eriotzaren gauak
illundu dit barrena.

Baiña zu askatzeko
artu nun eriotza
emaztetzat betiko.
Zapaldu nun biotza!

Nere gorpua galdu
ta usteldu da mendian.
Nork daki ze abereak
jan zizkidan begiak?

Ez kurutzerik lurran,
ez argiaren poza.
Eman nizun bizitza,
zuk neri eriotza.

Aita Anasagasti

GALTZAIRUZKO IDURI BATEN AURREAN

Iduriak ez du eguzki izpirik,
beltz dager, erdi beltzik erdi-muiña.
Artistak emen bai ezkutuz du joka,
margoaren antza egin nairik duiña.

Lauki luzatuan bi langa dijoaz
ametsaren griña bezin borobillak;
azken-muturretan, ezpaïta dizditzten,
ez bait da agartzen ezereen euskairik.

Bi langak lotuaz bi lokarri moltzo,
goi ta beeak alkar txit trunbillaturik,
ezkutuzko gogo batentzat mamia,
gorputz bat lokarriz gotortu gurarik.

* * *

Atoz, gizon, atoz! Ikus iduria!
An eman diozu! Or zaude zu dirdail
Jainkotiar zera, goi-txingar bizia,
eta gizatiar, batean bi izakai.

Lokarri estuaz zaudete arnasa,
ez zerate nor bi, bi batean baizik.
burnia ainbat gori, iñoiz gogaitzeke,
bear duzue igi, elkar atxikirik.

Bego ori loraz. Nor bat zera, gizon!
Gizarte bat zera, eta kosmos txiki.
Agan biribildu korapil naasia,
barne-naigabeko sekulan izaki.

Bizia, kemena goitikan dituzu.
Ospa zazu alai biziaren jabe.
Ez esan: «Gizona bai, Jaungoikorik ez».
Ez, etzera Jainko, goiko indarrik gabe.

Origaitik dira bi langa elkartu,
bat-bera bai litzan, elkarri arnaska.
Lur-miñak utzirik, jo gora, izaki!
Bizi-ardatz duzu Goikoa irrika.

Aita Onaindia

HAMAİKA İTZ HUTS

I

Hamaika hitz saltzen ditut
bost txanponetan: